



**AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR**  
**BERRIOZARKo UDALA**

**“URTXINTXA” BERRIOZARKO UDAL HAUR ESKOLAN MATRIKULA EGITEA**

**2017ko EKAINAREN 19tik 23ra.**

**Tokia: Berriozarko Urtxintxa Haur Eskola (Errota, 6).**

**Ordua: 8:30etik 11:30era.**

Ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:

- Matrikularen kuota ordaindu izanaren ordainagiria. 50 euro sartu behar dira Caixa Bank-eko **2100.5184.57.2100248980** kontuan. **Umearen izen-abizenak agertu behar dira ordainagirian.**
- Haurra inskribatua agertzen den Gizarte Segurantzako txartelaren fotokopia. **Agiri hori ez dute aurkeztu beharko aurreko ikasturtean zentroan egondakoek.**
- 2016ko Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren Aitorpenaren fotokopia, aitarena eta amarena, edo, halaxe badagokio, 2016. urtean lortutako diru-sarreraren frogagiriak. Agiri horiek 2017ko ekainaren 30a arte aurkeztu daitezke. Ez bada agiririk aurkezten gehienezko kuota ezarriko da. Ez dute agiri hori aurkeztu beharko gehienezko kuotari dagokion errenta edo altuagoa daukaten pertsonak, hau da, 15.000 € per capita.
- Errentaren aitortpena egiteko beharrik ez badute, horrela egiaztatzen duen Nafarroako Gobernuaren agiria aurkeztu beharko da, baita lan-bizitzaren agiria eta familiaren 2016ko diru-sarrerak egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen diren agiriak ere.
- Beste udalerrri batean bizi diren haurren kasuan, Udalari dagokion moduluen portzentajea finantzatu izanaren egiaztagiria. Finantzaketa hori bizilekuko Udalaren edo familiaren beraren kontura izanen da.
- Ordainagiriak helbideratzeko, banku entitatearen libretaren orriaren fotokopia, titularra eta zenbakia agertzen dituen. Agiri hori ez dute aurkeztu beharko aurreko ikasturtean zentroan egondakoek, kontu-zenbaki bera baldin badute.
- Halaxe badagokio, txosten medikoa, elikaduraren edo osasunaren aldetik behar bereziak azalduko dituen.